

HAURTXOA TXORIAK KANTARI

Testua: ANTONIO RUBIO

Irudiak: ÓSCAR VILLÁN

Itzulpena eta egokitzapena: XABIER OLASO

Kartoi gogorrean. Ertz biribilduak. 16 x 16 cm. 8,50 €/bak.

Haurtxoa: 18 or. ISBN 978-84-9172-289-2


Txorlak kantari: 18 or. ISBN 978-84-9172-290-8

«Ilargian kulunkantari» saileko ale bakoitza ariketa poetiko bat da "begia hezteko eta belarria goxatzeko", Antonio Rubio egileak azaltzen duen bezala. Itxuraz xumeak izan arren, diseinuan zein edukietan, hausnarketarako eta sorkuntzarako prozesu luze baten emaitza dira.

Kantutegi tradizionalaren baliabideetan oinarrituta (errima, erritmoa, zenbaketa, errepikapena, metaketa...) eta hondo argien gainetik nabarmentzen diren irudi ezagunetan, kantatzeko eta kontatzeko bilduma hau erreferente bat da Haur eta Lehen Hezkuntzan 0-3 urte bitarteko haur askoren aurreirakurketaren bidean.

Kolore biziz horniturik dauden liburukion proposamen estetikoak, 1999 urteko Ilustrazio Sari Nazionala jaso zuen Óscar Villanen eskutik datorkigu. Artisau-lana da berea, erraz antzematen diren pintzelkadaz eta tonalitatez hornitua; ehundura horiek guztiak ukitzeko modukoak dira batzuetan. Irudia nabarmen gelditzen da hondo argiko alderdian: marrakia soil-soila da, eta erraz antzematen da, artistaren beraren ukitua bistan-bistan gelditzen delarik. Bi sortzaileon ekarpen literario eta plastikotik abiatuta, KALANDRAKAREN lana zera izan da, bi aldeak uztartzea, sortze-prozesua bideratzea, eta, azkenik, argitalpenaz arduratzea.

Ilargian kulunkantari bildumako liburuki bakoitza ariketa poetiko soil-soila da, baina aldi berean, musikaren indarra ere bere-berea du. Horren bidez, haurrak ezkerretik eskuinera eta goitik behera nola irakurri ikasiko du, eta, era berean, orrietan aurrera egin ahala bertsoen joan-etorriari bide ematen zaiola ere ohartuko da. Ilustrazioek berebiziko garrantzia hartzen dute grafiaren aldean. Irudi irakurterrazak dira eta hitzak bezalatsu artikulatzen dira, zenbaturiko silabekin; bertsoen eran eratzen dira: era ordenatuan, neurturik, erritmoaz eta errimaz; lehenengo urteetatik hasita modu autonomoan irakurriak eta melodiaren bidez kantatuak izan daitezen pentsatuta daude.



■ **Gala:**

HAURTXOA: Jaio eta hazi, familia, afektuak.
TXORIAK KANTARI: nota musikalak, txoriak, kooperazioa.


■ **Adun egokia:** 0 urtetik 3 urtera.

■ **Nabarmenezkoa:** jolasa; errima eta erritmoa; ilustrazio errealistak; "begia hezi eta belarria eztitu"; testua eta irudiak antzematea, ikus-irakurketa; bildumako beste izenburu batzuk: Ilargia, Bost, Miau, Paper-txoria, Krokodiloa, Zapata, Biolina, Zuhaitza, Animaliak, Frutak, Bidaia, Jostailuak...

Antonio Rubio. (El Puente del Arzobispo, Toledo, 1953) Berrogei urtez maisu aritu da eta poeta ere bada; irakurtzeko eta idazteko duen grina gehitu behar zaio haur liburutegietan eta irakaskuntzan egindako lanari. Irakurzaletasuna sustatzeko ikastaroetan eta, orobat, irakasleen prestakuntzarako ikastaroetan parte hartzen du. Faktoria K-ren *Trece Lunas* poesia-bilduma zuzentzen du. Liburu askoren egilea da eta horietan guztietan nabarmenezkoak dira euskaraz: *Sandia-gidaria eta Heldu garen guztiak*.
<https://kalandraka.tv/videos/antonio-rubio/>

Óscar Villán (Ourense, 1972). Arte ederretan lizentziaduna da, pintura espezialitatean. Haurrei zuzenduriko *Untxitxo txuria* bere lehen ilustrazio lanaz, (KALANDRAKA), 1999 urteko lehen Ilustrazio Sari Nazionala jaso zuen. Hainbat argitaletxeren eskutik argitara eman dituen hogeita hamar liburuetatik, honakoak dira euskaraz argitaratutakoak: *Kamila Zebra* eta *Piztia arraro bat* (PAMIELA-KALANDRAKA). Bestalde, eskultura eta argazki-lanak egin eta kartelak ere diseinatu ditu. Orobat, KALANDRAKAREN *Alfabetos* arte-bilduma zuzentzen du. <https://ovillan.com>

Xabier Olaso (Otxandio, 1964). Irakaslea eta hainba libururen egilea. Nabarmenezkoa: Euskadi Saria jaso zuten *Pupuan trapua* eta *Tximeletrak* poema-liburuak.



www.  Pamiela .com
ctxea
softxate@pamiela.com

www.  Kalandraka .com
comunicacion@kalandraka.com